

EIBAR

Lehia bukatzeko bost minutu falta zirela, ihes egin zuen garaipenak

EIBAR	1
TERRASSA	1

Eibar: Riesgo (Basauri, 16. min.); Farraga, Urzelai, Sarriegi, Zubizarreta; Garitano; Uriz, Aitor, Alex, Eneko Romo (Galder, 62. min.); eta Jon Kortina (Miguel, 79. min.).

Terrassa: David Sanchez, Navas, Ruben, Hector; Recio (Fernando, 81. min.), Gibanel, Juan Carlos, Monty, Babangira (Keko, 68. min.); eta Juanjo (Moreno, 68. min.).

Golak: 1-0: Alexek (8. min.).

1-1: Montyk (85. min.).

Epailea: Mensuro Miguel. Txartel horiak: Eibarreko Romori, Garitanori, Alexi, Zarragarri eta Zubizarretari, eta Terrassako Hectorri, David Sanchezzi eta Juanjori.

Bestelakoak: la mila ikusle.

Erredakzioa | DONOSTIA

Merezitako hiru punturik gabe geratu zen atzo Eibar, norgehiagoka bukatzeko bost minutu soilik falta zirela Montyk gol bikaina sartu ostean. Eibar-ko taldeak esku-eskura izan zuen sailkapenean jauzia egin eta azpiko postuetatik ihes egiteko garaipena. Halere, azken unean, ia poltsikoan zeuden hiru punturik ihes egin zuten Ipuruatik.

Partida oso ondo hasi zen Blas Ziarretak entrenatzen duen taldearentzat, zortzigarren minutuan Alexek gola sartu baitzuen. Markagailua alde izatea ondo aprobe txatu zuten jokalariek eibartarrek partida kontrolpean izateko.

Kataluniako taldearen suspertzea bigarren zatian

Bigarren zatian, partidari buelta emateko asmoarekin irten zen zelaira Kataluniako taldea. Saiatu, gogoz saiatu zen Terrassa, baina ez zuen arrisku handirik sortzen. Halere, jokalariek kataluniarren lanak saria izan zuen, partida bukatzeko bost minutu bakarrik falta zirela berdinketaren gola egin baitzuten.

Athletic-Osasuna (Espainiako Ligako 13. jardunaldia)

Athletic		Jok. Ira. Ber. Gal.				
Entrenatzailea: JUPP HEYNCKES						
Sailkapena	11.	Etxean	6	3	1	2
Puntuak	5	Kanpoan	6	1	2	3



Aulkian: Aranzubia, Cesar, Larraiz, Karanka, Orbaiz, Guerrero, Vales, Urrutia, Yeste.

O.I.	17:00	San Mames (40.000 ikusle)	Muñiz Fernandez
------	-------	---------------------------	-----------------

Azken bost denboraldietako emaitzak

2001-02 1-1 / 2000-01 0-0 / 1999-00 - / 1998-99 - / 1997-98 -

Partidako datua

Azken igoeraz geroztik Osasunak ez du San Mamesen partidarik galdu Athleticek 32 jardunaldi daramatza atea hutsen mantendu ezinik. Sadarren lortu zuen azkeneko aldiz.

Partidako protagonista



Javier Aguirre. Bere guraso eta anaien bihotzeko taldearen zelaian bisitari izango da gaur.

Partidako esaldia

"Txikitzen Osasunazalea nintzen, baina egun Athleticeko jokalaria naiz, eta noski, irabazi nahi dut" (Carlos Gurpegi Athleticeko jokalaria).

Osasuna		Jok. Ira. Ber. Gal.				
Entrenatzailea: JAVIER AGUIRRE						
Sailkapena	16.	Etxean	6	3	0	3
Puntuak	12	Kanpoan	6	0	3	3



Aulkian: Unzueta, Paqui, Yanguas, Palacios, Gancedo, Lekunberri, Brit.

Gehiago hazteko uraren bila

Athleticek etxeko azken hiru neurketak jarraian irabazi dituelarik eta Osasunak azken bederatzi puntuetatik zazpi eskuratu dituelarik, biek ere ez dute bolada ona eten nahi

Haritz Gallastegi | BILBO
Asier Legarda-ereño | IRUÑA

San Mames bete egingo da gaur, Athletic eta Osasunaren arteko derbia ikusteko. Liga hasiera kaskarra egin ostean, talde biak joko eta emaitza bolada onean daude, eta zaleen artean ikusmin handia sortu du neurketak. Aste guztian euria etengabe egin arren, zelaia ondo dago, gainera.

Denboraldi hasierako krisia atzean lagatzeko, *katedrala* gotorleku egin du talde zuri-gorriak. Etxean jokatu azken hiru neurketetan ez du huts egin talde zuri-gorriak, eta laugarren garaipena jarraian lortu gura du, Osasuna mendean hartuta.

Gorritxoei aurre egiteko aldaketa bakarra izango du Heynckesek. Gripeak jota, deialditik at geratu da Arriaga. Aste guztian kili-kolo egon dira Yeste, Etxeberria eta Lacruz, baina normal aritu ziren asteko azken entrenamenduan, eta ez dute arazorik izango jokatzeko.

Hasierako hamaikakoan ez da aldaketarik espero. Atzelarien behararekin gustura dago oso entrenatzailea, eta seigarren jardunaldiz jarraian laukote berbera zelairatuko du. Aurrera begira, ostera, zalantza gehiago ditu. Sasoi bikainean dabilta Etxeberria eta Urzaiz, eta ziurtatuta daukate lekua. Beste bi lekuetarako hiru hautagai daude: Yeste, Tiko eta Ezquerro.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Iñigo Larraiz eta Tiko Athleticeko jokalariek, aste honetan Lezamako entrenamendua amaitzean.

Aguirrek ere badu bere kezka, eta partida bezperan oraindik zalantzak erabat argitu gabe azaldu zen mexikarra. Pablo Garcia —min hartuta— eta Alfredo —zigortuta— ez dira izango San Mamesen, eta euskarri-rako beste bikote bat behar du. Puñalek jokatu duela segurua da, baina haren ondoan aritzeko gizona «Muñoz, Lekunberri edo Gancedo izan daiteke».

Osasuna azken boladan oso ondo ari zen Pablo Garcia eta Alfredok osatutako euskarri bikoitzarekin: Valentzia, Celta eta Atletico Madril aurka gol bakar bat ere ez zuen jaso. Eta bi euskarrien hutsunea betetzea ez da hain erraza. Halere, kontu horiekin ahaztu, eta puntuen bila joan behar dute nafarrek Bil-

bora. Aguirre berak ere onartu zuen atzo: «Gabon aurretik lasaitasuna ekarriko luketen puntuak batzea oso garrantzitsua da Osasunarentzat». Horregatik, iragan bi denboraldietako bideari jarraitu eta galdu gabe itzuli nahi dute nafarrek San Mamesetik.

Bi taldeetako peñak elkarrekin, eta ESAITen materiala salgai

Giroa polita espero da gaurko San Mamesen. Partida beroa izango da zelaian, baina, hortik kanpo, bi taldeetako peñak Adour tabernan bilduko dira arratsaldean, Maria Diaz de Haro kalean. Leku horretan betan, ESAITek euskal selekzioaren aldeko materiala jarriko du salgai.

DATUA

Britek bi gol sartu zituen ostiralean Osasuna B-rekin

Gorka Brit Osasunako aurrelari gipuzkoarra deialdian sartu du Javier Aguirre entrenatzaileak. Britek Osasuna B-rekin jokatu zuen ostiralean, Barakaldoren aurka, eta bi gol sartu zituen, gainera. Partida 2-2 amaitu zen. Hala ere, aste honetan EGUNKARIARI egindako adierazpenetan, igandean ere berriz ere jokatzeko moduan zegoela esan zuen Britek, ostiralean jokatu arren, eta baliteke gaur jokatzeko lehen partida lehen taldearekin.

DAM AUTO ESKOLAK

Baimen guztiak • Klaseak euskaraz

BILBO-SANTUTXU-OTXARKOAGA-REKALDE • Tel.: 94 443 94 87